

## GOGOETARI LEIHO

## Kontu kritikak!

**P**ATZIKU PERURE-  
NAK, hizkuntzari buruz idatzitakoa irakurri dut. Oro har, hizkera ederrez idatzia, benetan. Baina bertan azaltzen diren ideia batzuekin ez nago ados. Kritikak egiten direnean kontuz ibili behar da, ez ote gaitezen gure teilatura harriak botatzen ari. Batez ere 'pedanteria' hitza azaltzen dugunean, kontuz! Ez ote da batzuentzat, zuk idatzitako *hizki* eta *ahozkatu* hitzak erabiltzea pedanteria? Euskara batuaren kontua hasi zenean, zenbait gipuzkoarrentzat *ekarri* dut esatea pedanteria hutsa zen. Beharrik gure ama ez zen enteratu! Nahiz eta gipuzkoarra izan, baserrian horrela ikasi baitzuen. Gaur egun ere, gipuzkoanero batzuek (ezen ez gipuzkoanista) arrosela aurpegia jartzen dute zaharrek irakatsitako hitz batzuk erabiltzen ditudanean.

Eta euskara batua aipatu dudalarik, koxka hortxe dagoela uste dut. Askok, euskaltzale gehienok beharbada,

euskara ez hiltzeko, hizkera standard (mese-  
dez, utzidazu horrela idazten) edo batuaren beharra genekusan. Batzuk aurka zeuden, baina denborak arrazoia eman digu. Batuarengatik ez balitz, ez litzateke gaur posible egungo egoera ikustea. Gaur egun, hala ere, herimintzaira edo hizkera jatorra gehiago erabiltzeko joera suma daiteke, eta ez da joera txarra, ea *gotzai* eta beste asmakeria absurdu batzuk baztertzen diren, baina kasu! Batzuentzat hizkuntza jatorra 'beren' hizkera da, Euskal Herria bere auzunea bakarrik ez dela ohartu gabe. Eta alde honetatik zuk aipatutako *orkestra* eta *krokodilo* hitzak *ekarri* behar ditugu. Nik aspalditik aditu dut *krokodil* euskal ahoetan. Ziur

zaude pedanteriak edo akademizismoak eraginda denik? Beharbada adibidea ez da oso ona, hemen krokodilo askorik ez baita, baina oso ongi konprenitzen didazula uste dut.

Beste arazoa, *-logia* eta antzekoak. Honi buruz Euskaltzaindiak erabakia du dagoeneko *-logia* eta abar idatzi behar dela, eta zorionez, ahoskeraren gaineko araua ere emana du, 'g' euskaraz *Gernikako* 'g' bezala ahoskatu behar dela oroitaraziz. Zuk filologia eta jeografia proposatzen duzunean, euskara batua erabiliz gero (nazio-mailako irrati batean, edo) nola ahoskatu behar da? *filoloyia?*, *filoloyia*, españolez bezala? ala *filoloyia*, frantsesez eta xiberotarrez bezala? Kontutan hartazu, eus-



I. MARTIARENA

ten guztia onartuz gero, euskara aspalditik hili-  
lik legoke. Dena dela, hitz zientifikoak jatorrizko hizkuntzetatik hartzeak ez du esan nahi jatorrizko grafia errespetatu behar denik, bestela sinbolo grekoak beharko genituzke. Beraz *v* eta *y* hobeki daude bazterturik, izen propioetan ezik.

Hizkuntzaren gaineko erizpideak, bestalde, ezin daitezke arau tinkoak bihur. Erizpide malguak izan behar dira. Gainera, beti izango da arazoa, hitz zientifiko eta arruten arteko muga non jarri behar den. Baina erizpideak behar dira, noski!

E. DE MIGUEL

kara batuaren ahoskeran, arrazoi historiko, geografiko eta praktikoengatik, *j = i* bezala artikulatu beharko dela. Entzun dudanez Mitxelenak horrela proposatu omen zuen, eta ez zitzaion arrazoirik falta, milaka euskaldunek ezin baitezakete ahoska fonetikoki (X) sinboloak adierazten duen hotsa (jota de jamón). Bestela 'hendea' eta 'haten' aditu beharko genuke aldiro. Ez zaizu hobeki iruditzen denok *filología* esatea, 'g' *Gernika* hitzan bezala?

Ez da hau gainera arrazoi bakarra. Hitz zientifikoak, hizkuntza guziek jatorrizko hizkuntzetatik hartu eta beren hizkuntzaren hotsen arauera egokitu dituzte. Euskarak latinezko maileguak zuzen hartzen zituztenean 'g' hotsa errespetatzen zuen, edozein bokalearen aurrean (*legem--lege*,

*regina--erregina*, eta zuk aski ongi ezagutuko duzun abar luzea). Zergatik orain espāñolaren galbahetik pasatu behar ditugu derrigorrez? Gure inguruan gehienetan horrela entzuten delako? Inposatu digu-

## BIDEZIDORRAK

Urrezko  
Domiña  
Maurizio  
txistulariari

MARIANO IZETA

**E**uskalerriko Txistulari Elkar-  
teak antolaturik Arizkun herrian jaialdi eder bat egin beharra da Maurizio Elizalde txistulariaren ohoretan. Urrezko Dominiaren eskeintza ospatu da, Txistulariaren Elkar-  
teak Maurizioari ematen dion ohorezko Domiña. Euskalerriko Txistularien artean norbaitek ohore hori merezi baldin badu, denen gañetik Mauri-  
zio bereziki dugu.



Baztanek izan duen txistulari haundietako bat, bere bizi guzian Baztango dantzen serbitzuko. Joandeko

65 urte hauetan beti herriz herri soñua yotzen, gazteei mutil-dantza erakusten eta baita txistua yotzen ere, beti atsedetik hartu gabe gure dantzen onerako lan onuragarria eginik.

1915 urteko Irailaren 21-ean sortu zen, Amairuko Lizundegi-mendia baserrian. Gero Amairuko baserria utzi eta Arizkongo Martintoneko baserria etorri zen famili guzia, hemen egoitza berria harturik.

Maurizio bere aita Antonio'rengandik ikasi zituen orain dantzatzeko ditugun mutil-dantzak eta gañerako dantzak ere. Haundia izan zen bere aita baiña semea ere aita bezala mai-xu eta dantzari. Hameka urte zitu-  
telarik hasi omen zen bere aitarekin soñulari bezala eta orduan atabala yotzen zuen eta holaxe eman zion hasmenta bere ofizioari. Gero txistulari bezala lan izigarria egin du eta bere bizi guzian ibilia han-hemenka Euskalerrian barna. Felix atabalaria izan da Maurizioaren laguna aunitz urtez. Baztango dantzariak ere leku aunitzetan ibiliak izan dira Maurizio eta Felixekin eta bai gure dantzak erakutsi ere Euskalerrin osoan. Erran dezakegu Baztango berrogeita hamar urtez azpiko mutil eta gizon gehienak Maurizioari esker ikasi dutela mutil-dantza. Baztango txistularien kondairan iñork ez du txistulari bezala hainbertze urtez iraun. Orain erretiroa hartu du eta bai ongi merexi duen atsedena ere.

Maurizio bere bizi guzian soñualdien artean aipa ditzagun: Eztaietan 416 aldiz. Meza Berriak 42. Apez zaharretan Omenaldietan 8 aldiz. Baztango herrietako bestetan aunitz urtez hutsik egin gabe. Lantzko Iñauterietan ere aunitz urtez.

## ORAIN DELA HEMERETZI URTE



Joxemiel Barandiaran eta Jesus Altuna.

Joxemiel Barandiaran Ekaingo  
kobazuloen azterketa amaitzen

Joxemiel Barandiaran antropologo aski ezaguna, orain hemeretzi urte, 1972an hain zuzen Ekaingo kobazuloen azterketa lanetan zebilen. Horrelaxe adierazten du garaiko 'Zeruko Argia' aldizkarian antropologo ataundarrak, bertan eginiko elkarrizketan.

«Jende asko aritu gera azterketa lanetan Ekainean. Denok 'Aranzadi' bazkunekoak ain zuzen. Eta lagun asko giñalari esker, lana ere ugari egin dugu. Luebaki haundi bat lehendik egina genduen; orain luebaki horrek ageri dizkigun lur-mailak aztertzen aritu gera». Aurkikuntzak ere izan ziren eta hauei esker kain ahal zuen Barandiaranek, aintzinako gizasemeen berri. «Metro

erdi bat eskax zulatu degu. Lehen mailetan, Mesolitos aroko harri landuak arkitu ditugu; harlandu txikiak, mikrolitos deitzen zaienak. Sutokiak ere agertu dira. Sutoki hauen azpian, berriz errekarriak ugari. Ziurrenez, euria egiten zuanean, ura sartzen zitzaieen hartzulora Ekaingo lehen gizon hauei, eta su guztia itzali. Era hontan berriz ura harrizabal hauen artetik igarotzen zan. Beste lur-maila berri bat ere hasia dugu aurtan. Lur-maila honek azken Madalen garaiko lanabesak eskaini dizkigu. Danera jota, 502 lanabes bildu ditugu aurtengo jardunaldian. Ia denak harrizkoak dira; herrurrezkoak, ezer gutxi... Grabatutako harri xabal bat ere bilatu dugu».